

Funtsezko Ekarteak

Hasteko beharrezkoa da kotxeak ekoizten dituen enpresa bat gure hornitzailea izatea, gu geuk kotxeak ekoiztea oso zaila izango litzakeelako. Gure enpresa aurrera ateratzeko bazkideen laguntza ere behar izango dugu; alde batetik, inbertsio handia behar delako eta bazkideen ekarpenekin kapitala lortzeko aukera izango genuke eta bestetik, kontaktuak dituen bazkide bat lortzea ere oso onuragarria izango litzakeelako.



Aurrean aipatutakoa gure enpresa aurrera ateratzeko garrantzitsua da hainbat arrazoiengatik. Hasteko, kotxeak ekoiztea eta saltzea ez da oso errentagarria gure kasuan, enpresa handia izan beharko baitzen lan kantitate hori kudeatu ahal izateko eta guk ez ditugu horretarako baliabide nahiko. Gainera, enpresak kanpo laguntza behar du eta hori bazkideen bitartez lortu dezakegu, gure enpresaren atal garrantzitsu bat da, kontakturik gabe ezin delako gure proiektua aurrera eraman.

Bazkide horiek ezaugarri desberdinak izan behar dituzte alde batetik kapitala inbertitzera prest dagoen bat, hasierako inbertsioa kantitate handikoa baita. Horrez gain, kotxeen sektorean esperientzia duen bazkide bat ere beharrezkoa dugu gure esperientzia ez denez nahikoa. Bestalde, merkatuan sartzea erraztuko digun bazkide bat, kontaktuak behar baititugu bezeroak lortzeko eta gure enpresa garatzeko.



Tsehainesh: Dirua kudeatzeko gaitasuna.

Paula: Marketin arduraduna.

Ainara : Bezeroekin jarduteko abilezia.

Itxaso: Hornitzaileekin harremanen arduraduna eta kotxeen ezagutza.